

Yugoeslavia'ko ibillialdiari AZKEN OARRAK

Dobrovnik'en itxasoari azken agurra emanaz, Yugoeslaviaren biozteruntz artu degu bidia. Laister ikusten ditugun resistenziarren ardatz izan ziren lurraldeak 40-45 gerretaren. Hemen, arkaitz, leize, mal-korrez betetako lur menditsu honetan, yugoeslaviar mendi goizalek pot egin arazi zien aleman gudarieri.

Goizetik iritxi gera Titovo-Uzi-ge'ra, resistenziako iri-buru izan zena. Hemengo museoa ikusi ahal izan degu guda demorako Titoren Cuartel-nagusia, lurpean egiaikako izkillu edo arma lantegi bat, gudan empletazten zituzten armak, eta nai aimbizte agiri eta argazki gudari buruz. Zembat oñaze eta mixerial.

Gu irtenzerakoan, 10'tik 14 urte arteko mutil talde bat zetorren museoa bixitatza. Ontaz konturaturik nere lagun batek zion, museo hau errien arteko gorrotoa irauan arazteko bezterik etzuela balio. Orduan, oroitu arazi nion, gudan ik ziren 1.700.000 yugoeslaviar, nazio guztiak 18 milloi izanik. Salariarik eta aulak ahazten dute bakarrik.

Arratsaldetik lantegi baten ikus-taldia. Ikusitakoak bezela, eta-berrikoa, egokia. Ala ere izan degu zerbait diferente: bisita-aretoan merienda eskeini digute. Aretoaren ormetan Tito'ren argazkia eta bere esera hau: «GIZONA DEGU GURE ABERASTASUNIK AUNDIENA».

Planifikazioari igesten zaizkion gauzak. — Nik Belgradotar guztiak ezagutzen ditut. — Stepinak kardenalaren il-obia lorez ezalirik.

Gau bi ta egun bat ematen digu gure programak Yugoeslaviako iri-burua, Belgrado ezagutzeko. Programak zer dakarren jakin gabe, esan dezakegu uts egiteko bildurrik gabe, bi gau oiek lo egiteko direla, goiza lantegiren bat bisitatzeko ta arratsaldea norkabokitzaren kapritxoaren gisara ibiltzeko. Planifikazioak ez du uts-egiten. Eta ala da, goizetik bi lantegien bixita señaleturik dago.

Suerte txarra euki dut: bizarra moztean labafakin zaintxo bat ebakiko nuen nortanaira, espafietan, eta odola gelditu ezinik dispensario batera jun bear izan. Beraz bi lantegiak ikusi gabe gelditu naiz. (Planifikazioari igesten zaizkion gauzak dira hauek).

Arratsaldetik iri guztira barreiatu gera. Belgrado aundia, berria ta itsusia iruitu zait, Okzidenteko edozein iri-berri bezain aundia ta itsusia gutxienez. Kaleetan bezte irietan baño gendearren joan-etorri geiago ikusten da. Badirudi Hitchcok'ek esan duela: «Nik Belgradotar guztiak ezagutzen ditut...».

Belgradotik Zagreb'erakoan, Erdi-Europako zabaldiaren egoaldea igaroten degu. Lur yoriak bezterik bada, baiña baita ere oso ezetsua. Pantano ugari ikusten dira, eizerako lu-

rralde egokiak eta zikoñentzat ametszeko-erriak.

Zagrebek obeto jakin du gordetzen bere antzinako nortasun eta usaja.

Gidarien buru ikasituko eta saboreirik gabeko itzez asperturik bainago, bakarrak abiatu naiz irien parte zahararren barna. Iru emakume burruka bizian ikusi ditut, pasadako gendeak eta poliziak batera ajolatzen etzirela.

Eliz-Nagusian Stepinak Kardenalaren il-obia lorez ezalirik.

Yugoeslaviako azkenengo iria eta politena. — Eztabaida galdu dut Erri komunista batean.

Gure ibillaldiaren azkenengo iria: Ljubijana. Ikusi degunetan erririk politena.

Azkenengo etapa. Ta baitere azkenengo lantegiak, azkenengo museoak..., eta (neka-neka eginik baigauduz) gidari ofizialaren azken-

germoiak, eta azkenengo eztabaida, iria erakusten ginduen gidariakin. Baiña zoritxarrez komunista amorratua izan beartzuan eta iya iya erri bixian bukatu degu. Oligertatzen da sarritan itz onekin: iztegiaren itzal-epoletik irizten duenian, eztabaida puzkatu egiten da, ez ta bai, bai ta ez, bai ez ta, ez ta bai ta, biurtuaz. Gero puzkak zeñek kompondu?

XABIER LASA



NAZIO-ARTEKO UNEA ITALIA'N LENDAKARI BERRIA

Egia esateko, gertakizun ori ez da berri bat. Egunerokoa orrietan gaurkotatuna galduta du. Baiña berri bezela gertakizun orrek gaurkotatuna galduta baldin badu ere, luzaorako ondorenak daukala uste dutelako merezi du bere gain zerbait esatea.

Lenegoz, asko itzegin da Italia'ko diputadu ta senatoreak izan dituzten nahaspilla guztiak azkenean, ogeigarren saioan lendakaria aukeratzeko. Beraz parlamentarismoarentzat izena ta fama galitza. Orretaz getena postu diranak komunistak eta faszista berriak izan dira. Gaiñera, ikusten denez, gaur eguneko politikaren joera personalizatua da. Jendeak politika bat edo bestea aukeratzeko batez ere persona egokiak aukeratu nai ditu ta orregatik bai gobernuko burua ta bai errepublikaren lendakaria gero ta geiago erri guztiaren aukeran jartzen da. Ori da Errelnu Batutako elekzioak erakutsi dutena, ori da Frantzia'ren prolema. Ori ikusiaz badirudi Italia'ko parlamentarioak eman duten espektakulua, politika modetan desfasatua egotea.

Baiña kontuz. Ba dira gertakizun onetik bear ez diran konklusioak ateratzen dituztenak. Batzuek onela diote: ez al duzte ikusten parlamentarismoak eta partiduekiko demokraziak dakarkiten galerak? Onela mintzatzen direnak fariseo utsak besterik ez dira. Ez dago ukatzerik, Italia'ko lendakari aukeratzeak berebiziko prolema erakutsi dizkizu ta gaitz oiek sendatu bear direla. Baiña ez al du parlamentarismoak berak, sistema bezela, gaitz oiek sendatzeko biderik egokiena izango. Era guztietara, ta ori befi da ohea, demokrazietan gaitz guztiak agirlan egoten dira, danak ikusieko moduan. Ez da orrela gertatzen ordea zenbait lekutan. Ta ez da beñere ahaztu bear ez dala kuestioa prolema ez edukitzea, baliz eta prolema oiek konpontzen jakitea. Ta nik uste dut ortarako balio dutela Italiako demokrazia.

Bestetik berri izugarriko gertakizuna da Italia. Erroma'n, Vaticano'aren Itzalean sozialista bat, laiko bai agintari egotea. 1945'gn, guda ezkerotik danok dakigu zenbaterainoko indarra izan duen Vaticano'tik ateratako aginduak kristau demokraziaren aurrean. Ta oitara orrek zerbait jarraitzen du gaurko gunean. Beraz gertatu dana, nik uste dut, Vaticano'aren jakinean gertatu dala. Nork pentsatu ori Pio XII'gn, agindupean!

Azkenik kristau demokraziak egin bearko duan aldaketa. Gerra ondorenan, katolikoak katoliko bezela partidu batean elkarren ziran: kristau demokraziaren barruan. Azkeneko ogei urte oietan kristau demokraziak egin duan gauzik aundiena orixe izandu da: konfesionalismoa litzea. Gero ta gutxiago azaltzen dute katolikoak bere politika erinkizunetan konfesionalismoa, gero ta gutxiago lotuak daude katolikoak bere politika erinkizunetan partidu bat bakarrari, batez ere kristau demokraziari. Urte auetan kristau demokraziaren bitartez katolikoak bere fedearren kontra ez zeuden edozein eratako politikan jokatzeko ikusi dute. Jainkoa ta erlijioa gai oietan sartu gabe, Jainkoa ta erlijioa biziaz ordea. Izan ere tren batean goazenean ez dugu beñere galdetzen malkinista kristaua den edo ez, malkinista trenan odo ematen dakin edo ez balizik. Politikan ere berdin. Zoritxarrez Jainkoa ta erlijioa ta erlijioa gelet nahastu ditugu politikian, gelinean gaiñera injustizia ta berkoitasuna defenditzeko.

RIKARDO ARREGI

Etxe-ko-andre: irau arazi zure arropel onoko jabol onein:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'zazu ATOMIZADO LAGARTO — jabolta erabili beti Eskuz ba'zabiliz, LAGARTO — jabolta bear dezuz erosi JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarra Etxe-ko-andrearentzat nerkamerik egokiene.

¡¡JABON LAGARTO!!

ERAMAN-ERARRIRAKO Transportes AZKAR


NORANAIKOI

Donosti'tik:	
Bartzelona'ra ...	Egunero
Zaragoza'ra ...	»
Valentzi ...	»
Madrid ...	»
Oviedo ...	»
Gijon'a ...	»
Sevilla'ra ...	Astean iru aldiz

Lugo, Coruña, Orense ta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 Telef. 25 4 57 — DONOSTIA

AUTOSERVICIO Estación
 «ETXEBARRI»
 Ondo joan eta Ondo etorri
 ETXEBARRI (Vizcaya)



Ale bakarra

2'50 pezta